

84th PEN International Congress
Pune, India
2018ko irailaren 25-29

Kongresuaren Kronika

Partaidetza eta Gai nagusia

Ganesh Devy irakasle eta Indiako hizkuntzetan adituak 2016an adierazi zion PEN International-i sei hizkuntzatako idazleek bazutela asmoa India Hegoaldeko PEN zentrua sortzeko. 2017an, dagoeneko, TaLRC batzordea antolatu zuten Bengalurun, eta aurten gai izan dira 84. kongresua antolatzeko Pune hirian, unibertsitate ospetsuenak jasotzen dituen hirian.

Aurtengo gaia izan da *"Experiments with truth: Freedom, Truth and Diversity"* eta **Mahatma Gandhi** izan da kongresuaren ardatza, haren inguruan eratu baitira mahainguru eta hitzaldi gehienak. Gandhi 1869ko urriaren 2an jaio zen eta 150. urteurrenaren ospakizunak urtebetez garatuko dira, 2018ko urritik 209ko irailera. Taldeei hiru hitz horiek (Askatasuna, Egia eta Aniztasuna) gure hizkuntzara itzultzeko eskatu ziguten udan zehar, eta hala, euskaraz ere jarri zuten kartela.

Aurtengo kongresuan inoizko zentru kopuru handiena bildu da, 90 zentru inguru izan gara; kontinente guztietako idazleak batzartu gara, horietako zenbait lehen aldiz. Euskal PENetik Urtzi Urrutikoetxea eta Laura Mintegi joan dira.

PEN Batzordeak

Ohi bezala, lehenengo bi egunetan Batzordeak bildu dira eta azken hiru egunetan, delegatuen asanblada.

TaLRC- Indian Indian ehunka hizkuntza mintzatzen dira, eta Ganesh Devyk horien zerrenda zehatza egin zuen, 700 baino gehiago "aurkituz"; ondorioz, dibertsitatea izan da gai zentrala batzordearen lanean, eta interes berezia izan dute euskaldunongan ere. Testuinguru honetan, gure hizkuntzari eta gure ekimenei buruzko hitzaldia eskatu ziguten eta Urtzi Urrutikoetxeak azaldu ditu, besteak beste, euskararen oinarriko datu batzuk, azken 50 urteotako ibilbidea, 2016an Donostian sinatutako *Hizkuntza eskubideak bermatzeko Protokoloa* eta ia bi urteotan egin duen ibilbidea, nazioartean zein Euskal Herrian, eta gure hizkuntzarentzako une garrantzitsu honetan

egiten diren beste ekimen batzuk: Euskaraldia, **HIGA!** "*Hizkuntza gutxituen hiztun gazteen 2. Topaketa*" (2018an Euskal Herrian hizkuntza gutxituen inguruan aritzen diren 70 gazte ekintzaile bildu dituen), **Garabidek** indigenekin egiten duen lana, eta euskara batuaren 50. urteurrena eta **Euskaltzaindiaren** mendeurrena.

Gogorazi egin da otsailaren 21ean izango dela **Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna** eta zentrueri eskatu zaie adierazteko nolako ekimenak egingo dituzten egun horretan.

WIPC- Beste jarduera batzuen artean, Euskal PENek salatu du adierazpen askatasunari egiten ari zaion eraso Katalunian eta babestu egin du PEN Catalá-k idatziriko manifestua.

Adierazpen Askatasuna babestu eta indartu nahian, eutsi egingo zaio emaitza ezin hobek ematen ari den **Free the Word** kanpainari.

Hate Speech kanpainaren inguruan ere egiten ari diren ekimenak azaldu dira eta ildo beretik joko da hurrengo hilabeteetan. Iaz eztabaida bizia egon zen gai honekin, adierazpen askatasunaren eta gorroto-mezuen arteko lerroa ezartzea dagoen zailtasuna dela eta.

Make Space jardueraren gainean egindako ekimenak ere azaldu egin dira. Ekimen interesgarria da, Europar errefuxiatuen arazoari begira egindako ekimenak jasotzen ditu, erbesterratu behar izan duten Siria, Eritrea, Afganistan eta beste hainbat herrialdeetako idazle eta kazetariez gain, idazlegaiak, umeak eta hezkuntza eta antzeko arazoei heltzen diena. Zehazki programa horretan sartu ez arren –oraingoraindik antolatuta gabe zegoen programa – geuk ere hala egin genuen 2016ko otsailean Donostian, gurean diren hainbat lagunengatik hizkuntzak eta euskara uztartuz.

In Memoriam

Urtero gogorarazi egiten dira urtean zehar zendu diren idazleak eta Euskal PENek Punera eramatu duen Junes Casenave-ren oroimena.

Hauteskundeak

Asanbleak berriz hautatu du presidente Jennifer Clement idazlea, bigarren eta azken arduraldia betetzeko, eta hiru presidenteorde izendatu dira, Ngugi Wa Thiong'o (Kenia, bisatu arazoengatik etortzerik izan ez duena tamalez), Perumal Murugan (India) eta Nayantara Sahgal (India).

Zenbait kargu berritu behar ziren eta hauexek izan dira Zuzendaritzarako hautatu diren kide berriak:

Burham Sonnez (PEN Turkia), Ola Larsmo (PEN Suedia), Regula Venske (PEN Alemania) eta Elena Chizhova (PEN San Petersburgo). Bestalde, Salil Tripathi (PEN India) berriz hautatu da WIPCeko (Idazle Jazarrien Batzordea) buru izateko.

Bilaketa Batzordea ere berritu izan da eta Urtzi Urrutikoetxea (Basque PEN) hautatu da beste lau kiderekin batera: Caroline Stockford (PEN Wales/Cymru), Antonio Della Roca (PEN Trieste), Judith Rodriguez (PEN Melbourne) eta Rose Mary Espinosa (PEN Mexico).

Zentru berriak eta zentru itxiak

Bost zentru berri sortu dira eta beste batzuk daude sortzeko bidean. Sortutako zentruak dira: PEN Perth, PEN Guinea Bissau, PEN Cabo Verde, PEN Iraq eta PEN Mosku, (Sant Petesburgo zentruaren babesarekin eta Errusiako zentruaren iritziaren aurka).

Bertan behera gelditu diren taldeak bi dira: PEN Aljeria eta PEN España. PEN Aljeriako kasuan, kiderik gabe daude eta presidentea baino ez da ari. PEN España zentruaren kasuan, ez du aktibitatearik azken urteetan.

Bestelako ekimenak

Kongresu guztietan ohi denez, hainbat irakurraldi, eztabaida, film proiektzio eta antzeko ekimen izan dira, munduko leku ugarietako egoeren berri emanez, eta Indiako hizkuntza-aniztasunari buruzkoak beste asko. Orain arte egin gabeko jarduerak bereziak ere izan dira: hizkuntzen basoa landatzea, esaterako, hizkuntza bakoitzeko zentro batek zuhaitz bat landatuz, ikasleekin topaketak unibertsitatean, PENkideak taldeka banatuta, eta hizkuntzen prozesioa, Indiako hizkuntzen ordezkariak eta kongresuan ginen taldeok elkarrekin Pune kaleetan.

Ebazpenak

Asanbleak 27 ebazpen onartu ditu, aurretik batzordeetan luze eta sakon eztabaidatu ondoren. Ebazpen hauek inplikaturik dauden gobernu eta erakundeei helaraziko zaizkie, aintzat har dezaten PEN International-ek antzeman dituen adierazpen askatasunaren aurkako jarduerak, idazle jazarriak aska ditzaten eta hizkuntzen aurkako erasoak gelditu daitezuten. Herrialde hauen gainean adostu dira ebazpenak: Egipto, Eritrea, Guatemala, Txina, Nikaragua, Azerbaijan, Hungaria, Israel/Palestina, Malta, Mexiko, Tanzania, Kuba, Iran, Kanbodia, Venezuela, Vietnam eta Turkia.

Beste ebazpen batzuk gai orokorren ingurukoak izan dira, hala nola klima aldaketa, difamazioa Afrikan, desnuklerizazioa, Estatu Batuetako immigrazio politika, askatasun zibilen higadura, indigenen ahotsa Australian dituen arazoak eta arma kimikoak.

PEN International-en 100. urteurrena

2021an 100 urte beteko dira PEN International 1921ean sortu zenetik. Horren harira, Londreseko zentralak zentru guztiak bultzatu ditu zentru bakoitzaren historiaren berri emateko, 15 dokumentu edo argazki esanguratsu bidaltzeko eta, nahi izanez gero, anekdotaren bat edo beste plazaratzeko. Material hori guztia PENen webgunean jarriko da eskuragarri.

Hurrengo bilerak

Hurrengo kongresua Manilan (Filipinas) izango da 2019ko urrian

TaLRC batzordea Mexikon egingo da ziur aski maiatzean, WFPC batzordeak urtero bezala Bled-en (Eslovenia) egingo du bilera 2019ko apirilaren 3-6an eta WIPC batzordearen bilera ere egitekoa da (bi urterik behin egiten da, azkena 2017an Norwegian). Europan egin ohi da, baina oraingoz ez da ñabardura gehiagorik eman.

Euskal PEN-Basque PEN
2018eko irailaren 29a